

IKASKIDE TALDEA- KIDE BERRIAK

II. MINTEGIA

IKASKIDE TALDEAK ETA ANIZTASUNAREN TRATAERA

MINTEGIAREN BILAKAERA

4 orduko saioa

1. Mintegiaren eduki nagusiaren aurkezpena

- Bigarren mintegi honen edukia zehazterako orduan, Lehenengo Mintegian planteatutako behar nagusi bati heldu zaio: **aniztasunaren trataera**

2. Aniztasunaren inguruan sor daitezkeen egoerak aztertu

Hausnarketa hau bi urratsez osatutako talde dinamika baten bidez eraman da aurrera:

- Lehenengo urratsa: **HAUSNARKETA**
 - Mintegiko partaideak lau lantaldetan banatu dira. Kide bakoitzak taldeari bere burua aurkeztu ondoren, honako galdera hauei erantzun zaizkio taldeetan:
 - ✓ Nola ulertzen dugu aniztasuna?
 - ✓ Zer egoera ikusten ditut gelan aniztasunaren inguruan?
 - ✓ Nola egiten diet/die eskolak aurre egoera hauei?
- Bigarren urratsa: **EKOIZPENA**
 - Behin galderen erantzunak adostuta, horiek mural batetara eraman dituzte taldean, eta, ondoren, horren aurkezpena egin dute.
 - ✓ Horretarako, taldekideen artean rolak eta bakoitzaren zereginak baznatu dira (aholkulariak zehaztu ditu rolak eta zereginak; ondoren, taldekideen artean banatu dituzte):
 - Rolak:
 - ❖ Dinamizatzailerak
 - ❖ Materialaren arduraduna
 - ❖ Errefortzu positiboak ematen dituenak

- ❖ Idazkaria

- Zereginak:

- ❖ Ahots gorako aurkezpena egin
- ❖ Muralaren estetika zaindu
- ❖ Muralean idatzitakoa ondo dagoela ziurtatu
- ❖ Ateratako ideia guztiak zentralizatu

Dinamika eta zereginak aurkeztu ondoren, aholkularia taldez talde ibili da, zereginarekiko lantalde bakoitzak konpromiso maila handiagoa hartzera gonbidatuz. Adibidez:

- Ahozko aurkezpenaren atal bat ingelesez egitea.
- Murala egiteko materiala birziklatzea.
- Errefortzu positiboak eman behar zituztenek, anekdota bat kontatzea.
- Dinamizatzaileek parte hartzea bultzatzeko konpromisoa, gaitik aldentzen bagara gaira buelta egiteko konpromisoa
- ...

3. Egindako lanaren aurkezpena

Talde guztiek aurkezten dute egindako lana hizkuntza eta modalitate desberdinetan: euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez, frantsesez, abestuz, etab. Aholkulariak proposatu eta taldeak hartutako konpromiso guztiak bete dira.

- Ondorio nagusiak:
 - Denok egin dezakegu guk uste baino gehiago.
 - ✓ Gakoa: konpromisoak hartzea.
 - Aniztasunaren trataerarako eta ikasle guztien garapen integrala sustatzeko, talde lan kooperatiboaren giro eta aberastasun horren markoan, garrantzitsua da ikasleen talde-konpromisoekin jokatzeko.
 - ✓ Konpromiso horiek ematen dute aukera ikasle baten garapena sustatzeko eta, aldi berean, taldekide sentitzeko: norbanako konpromisoak norbanakoaren ikastea bultzatzeaz gain, taldeko helburuak lortzeko beharrezkoak dira.

4. Egindako praktikatik ondorio teorikoetara iritsi

Behin ariketa praktikoa eginda, aholkulariak hezkuntza kooperatiboak aniztasunaren trataeran duen edo izan dezakeen papera azaldu du. Alegia, aurretik egin dugun ariketa praktikoko horri hitza jarri dio, azalpen teorikoa eman dio.

- Egindako ariketa edozein gelatan aniztasunari erantzuteko simulazio bat izan da. Praktikaren kontzeptualizaziora pasatzen gara orain:
 - Guztiok helburu bera dugunean, taldearekiko eta norbanako konpromisoak hartzen eta betetzen ditugunean eta interdependentzia positiboa dagoenean (besteak egiten duena guretzako beharrezkoa da, eta alderantziz, nik egiten dudana besteentzat ere beharrezkoa da. Aldi berean, elkarri lagundu behar diogu, guztion konpromisoa baita bakoitzak hartutako konpromisoak betetzea) esaten dugu kooperatiboki lanean gabiltzala, eta beraz, hezkuntza kooperatiboa ematen dela.
 - Konpromiso edo funtzioak banatzen direnean irakaslearen papera oso garrantzitsua da, izan ere, ikasle guztien garapena bermatu nahi baldin badugu, ikasle bakoitzari bere gaitasunekin bat datozen funtzioak esleitu zaizkiola bermatu behar da, baina aldi berean erronka izan behar direlarik, hau da, hartutako konpromisoak errealitatera hurbiltzen direla ikusi behar da.
 - Irakasleak konpromisoak hartzen lagun dezake, baita ikasleak konpromisoak hartzera animatu ere. Gainera, beste batzuen artean, ikasleak haien artean elkar laguntzera bultzatu behar ditu.
 - Ikasleek funtzio zein rol berdinak etengabe izan ez ditzaten, hauek txandaturaz joan beharko dira, horretarako irakaslea erne egon beharko da.
 - Ikasle zein irakasleek argi izan behar dute ez dutela guztiek dena modu berean eta aldi berean egin behar.
 - Hau guztia kontuan hartuta, adin eta maila zein erritmo desberdinetako ikasleek batera ikas dezakete bakoitzaren garapenean aurrera eginez eta elkar aberastuz.

5. Teoria eguneroko praktikarekin lotu.

Egunerokotasunean euren geletan aniztasunarekin lotuta aurkitzen dituzten egoerak planteatu dituzte irakasleek, berriro ere, maila teorikoan azaldutakoa praktikara jaisteko. Honako egoera hauek planteatu dira:

- Zer egin ikasle batek ez duenean ezer egiten? paso egiten duenean?
 - Talde izaera bermatzea oso garrantzitsua da, eta hau, babesa emanaz, eta haiek babestuak sentituz, jarduerak interesekoak izanez, emaitzak positiboak izanez, taldeko kide sentituz... lortu daiteke.
 - Talde gisa funtzionatzen den heinean, talde bakoitzak helburu komun bat du eta helburu hori lortzeko bakoitzak bere konpromisoak bete behar ditu eta taldekideei eurenak betetzen lagundu. Horrela, ikasleentzako presio positibo bat sortzen da, euren ikaskideena. Dagoeneko ez dute lan egin behar

irakasleak esaten duelako, baizik eta euren helburu indibidualak eta taldeko helburuak lortzeko. Hortaz, lan egiteko motibazio eta behar gehiago badute.

- Hezkuntza kooperatiboan nota kuantitatiboak jartzea zaila da?
 - Ez da zaila, nahi izanez gero, nota kuantitatiboak jar daitezke (edo sistemak horrela eskatzen duelako). Baina garrantzitsua da ikasleek eurek ere jakitea nota bakoitza zeren arabera den. Alegia, hasieratik jakin behar dute esaterako 7ko bat lortzeko zer egin behar duten taldean. Konpromiso hori lortzen badute lortuko dute 7koa; bestela ez. Hortaz, euren esku legoke nahi duten nota hori lortzea.
- Lana banatzea ondo dago? Alegia, lana banatu, ondoren juntatu eta entregatu.
 - Oso garrantzitsua da guztiek egindakoa guztientzako beharrezkoa izatea, hau da, batek egindakoa bestearentzako bere lana egiteko beharrezkoa izatea. Interdependentzia hori baldin badago ezin dute bakoitzak bere lana egin eta dena batuta entregatu, beraz, oso garrantzitsua da interdependentzia egotea.

Eta, honekin, partaideek mintegiaren balorazioa egin ondoren, saioa bukatutzat ematen da.